

# "JAUTARKOL" OLERKARIA

POR LEIZ

«Ixildu da betiko ereskin bikaña,  
eusko mendietako txindor atsegiña...  
Jaunak eman zigun ta Jaunak kendu digu.  
Naigabez zure naia, Jauna, gurtzen degu.»

«Lizardi» olerkari gorengoak betiko lo artu zuanean, orainaldian galdua degun Jauregui'tar Luis, errenderitar olerkariak eskeini zion «Zure oroiz». Aren bukaera gure eginik, zeinen ederki ager dezakegun erriko euskeltzaleen samina.

Udaletxe enparantzara begiratuaz, Beko ta Erdiko kaleak mugatzen duten etxe zabalean jaioa zan. 1896gn. ekainaren 19an. ziurki. Erriaren erdi-erdian. Beste itxurarik zukean, orde, arri landuzko ormadun etxe ederrak. Geroztik, zarberritu ta itxuraldatzeari ekinik, estalki kaxkarrez ornituta, or dugu ondasunak gorderik... Eleiz ataria, Udal-etxea ta beste bi kale-kantoinak mugatzen dituztenak ere arlanduzkoak ditugu. Or Enparantza Nagusian bizitzara etorria zen. Periko konfiteruaren semea. Gozotegian jaioa. Ez, ote, bere gozotasun atsegina, sorlekuari zor?...

Gizon egitean, apaiz jatorra gendun. Comillas'en ikasia. Teologi ta Eleiz-legedian lizenziatua. Apaizgintzaren lanak Solinillas de Buradon Araba'ko erritxoan asi, ta Al-tzo, Anoeta, Matxinbenta ta Urrestilla izan zituan bere kristaudi. Orainaldiko kezka sakon ta bizibear larririk etzuan, erritxo paketsu oietan. Orrela, bere barruko ederegarria asetzeko naiko asti zezakean.

Gaztea nintzalarik ezagutu nuan. Gorrotoak eraginda, bizitza kendu zioten apaiz jaun gurgarri ta prestuaren ekin-tza txalogarriarentzat, sortutako olerkia abesteari ekin genionean. Gazte-Elkartez ta bere irazle maitagarriatza ari nauzute.

Eskatu bezain laister ekarri zigun, geroztik guziona izandako abestia:

Atoz, ta sartu zaite  
Gazte-Elkartean;  
ementxen dago Jesus  
umeen artean.

Ordurako, asia zen lenen sariak bereganatzen. Euskaltzaindiaren sariketean, «Egizko edertasuna» zeritzan ipui luzeaz, jaso zuan lenengo sari nagusia. Bermeo'ko Gaubeka'renean argitaldua.

Beste liburutxo bat ere badizu: «Ipuiak». Donostia'n agertu zan.

Bere bizitza guttiko ekintza gurena, orde, olerkaritza izaki. Orrelaxe, lenengo erritxoan zelarik, Euskal Esnaleak

gertutako batzaldian, garaitza eman zion olerkia «Itxas bazterrean». 1923gn. urtea zen, ta urrengoan sari pila aundiarekin agertzen zaigu: «Aralar» lenengo. «Illeta eresia» rekin ere gurenda; ta, «Bergara'ko Jesus Gurutzetuari» poemarekin ere bikainen.

Euskal Esnalea'k urtero zituan olerki-sariketak. 1927-gn. «Aizkorriren oñetan» garaile. Urrengoan «Zertan dago gizoneren zoriona». Biak bereak.

Ogei ta bederatzigarrenean argitaldu zuan «Biozkadak» izenarekin, olerki-bilduma goxo, ezti, maitagarria. Zuek ere dastatu aal ditzazuten, ona emen izenari dagokiona:

Loretegian sartu nintzan bein  
udaberri goiz batean,  
ta arrosa gorri mardul-mardul bat  
zegoen lore tartean.  
Intza tantozko koroï ederra,  
dirdizka buru gañean...  
Arro ta tente, zoragarria,  
erregin baten antzean.

Erregin baten antzean zegon  
arrosa mardul arroa,  
nere beatzez ebaki nuen  
ta il zan negarrez gaxoa.  
Usaitu nuan asetu arte  
bere usaiaren gozoa,  
ta zubi-goitik ibai-gañera  
bota nuen loretxoa.

.....  
.....

Etxe aldera pozez nijoan  
bitartean  
odol iturri bat neukan  
beatzean...  
Orra, or, bizitz-loretegiko  
baratzean  
gerta oi dana, poz-atsegiñen  
ondorean;  
oñaze-iturri, ta arantz-zorrotzak  
biotzean.

Euskal Esnalea aldizkaritik jasota, ona emen irizlariaren iritzi omentsua:

«Nolako olerkaria etorri zaigu? Azalez, euskera garbi, erreaz ta irakurgarrizkoa; neurtitz-neurri ugariduna. Mamiz, biotzdun ta gogapentsua; ez dabil bada, bertsolari eraz, olerkari jakitun ta elertitsuen antzera baizik.»



Gaurko joera berrizaleak eraginda, ziurki, inoren aurrean batez ere, zenbaitek baztertuko dutela. Neurriduna baita, protestarik gabea. Ez du inor sumintzen, besteren malkoak saminki jaso arren.

Bein baino geiagotan liburuxka ori mireztua duala, ta berriro ere irakurri bear duala, zion, esamesaen ajolarik ez duan gazte izandakoak. Oraingo, zentzudun bezain gogor, ederra maite duan baino nekatuxe nabari dutan olerkari bikainak berriz, auxe jalgia dit: «Emeretzi-ogei urtedun gazteak, irakurtzen duten Becquer antzekoa.» Ta, ain xuxen, badizu liburu ontan, aren «Rimas» ezagutu ondoren opaldutakoa.

Gaurko gazte bizardunak, emekeriak dirala esanen digute. Oldartsu ager bear bai dute. Ez da noski, zirt edo zart eginaz guztia apurtzen duanetakoa. Baina bai, erreza, atsegina, errikoia. Bere garaian ospetsuenetakoa. Bere urteetako gurendak diote.

Biribiltzeko, ementxe, Errenderi'n lenengo aldiz ospatutako Eusko Olertj Egunean, sortu zan «Zilarrezko aritz abartxoa», Bedoña'ren oroiz gertutago VIgn. bereganatu

zuan «Maite opari» sentikorrarekin. Apal-apalki, baina, gailurrera iritxia zen.

\* \* \*

Gure erriko jaietan ezin genezake aztu. Ain zan errizale. Madalenetan ementxe ikus genezakean, meza nagusia zela, zumardiko erestaldian... ta gero, jakina, oitura jarraituz ornitutako mai inguruan.

Ez dugu orde, aurrerantzean ikusi aal izango. Zeruko errira-bidean, ainbat euskaldun jarri zituan apaiz prestu, apal ta alaiak, betiko atsedenetan ere olerkiak eginen ditu ziurki, Jainko ikusi ta goraldiaz, pozik. Ta, erritarrak go-goan dituala, berriz, nola ez sinistu?...

Ona emen, bukatzeko, «Errenderi nere jaioterriari» bere olerkia:

Errenteria, nere aurtzaro zorioneko  
seaska kutun-beroa;  
nere barrendik biotza igeska gaur zuregana  
pozez urturik dijoa.

Pozez urturik bertsoz jantzita  
zuri agur egitera:  
pozaren pozez bidezkarria jaioterrira  
itzuli oi dan antzera.

.....

Arren, ez aztu, maitasun musu baten antzera  
irarrita bekokian,  
guraso zarrak utzi zizuten beren izkuntza  
beren eriotz aldian.

Izkuntza ori zurea da-ta, zure koroiko  
pitxi bikaña dezute-ta;  
zure obenez bera iltzen bada, betiko dezu  
zure izen ona galduta.

.....

Erri maitea! Piztu, ba, piztu zure barruan  
itxaropenaren sua...

Ez ote dezu, urritj ikusten zure  
izar onaren kiñua?

Aurrera beti...! Matxin, Isasti, Zabalbide ta  
Ugarte'n ama lerdena...

Oraindik ez da zukan agortu Tripoli eta  
Oran'go zure kemena!

Oraindik ba-du seme argiak egin-azteko  
zure sabelak almena...

Izan, ba, laister Gipuzkoa'ko koroigañeko  
pitxi dirdiratsuen.